



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

**UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA**

**BERTARATUAK**

**alkate-udal burua**

IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN

**zinegotziak**

JONE ZUBELDIA ALTUNA

ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA

ITZIAR SAENZ DE OJER MARTINEZ

IRAITZ OLAETXEA BALERDI

SABINO SAN SEBASTIAN MURUA

AITZOL ZUBELDIA IBARLUZEA

**IDAZKARIA**

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2020ko abenduaren 14an, arratsaldeko 19:00etan, eta Udaleko alkate udalburua, Iñaki Azpiroz Beldarrain izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

**GAIAK**

**LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

**BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

2020/229 Dekretua

2020/230 Dekretua

2020/232 Dekretua

2020/234 Dekretua

2020/236 Dekretua

2020/238 Dekretua

2020/240 Dekretua

2020/241 Dekretua

2020/243 Dekretua

2020/244 Dekretua

2020/249 Dekretua

2020/251 Dekretua

2020/252 Dekretua

2020/255 Dekretua



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

**HIRUGARRENA.- 2021 URTEKO AURREKONTO OROKORRA ONARTZEA**

Ekonomi Batzordean aztertuz gero eta, Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 149-4 artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzeko Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua eta Erregimen Lokaleko gaietan Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legearen 126.1 artikuluen arabera, 2020 urterako Aurrekontu Orokorra aurkeztu da, honela geldituz:

**SARRERAK**

Kapitulua	Izena	€ Guztira/
1	Zuzeneko Zergak	136.000,00
2	Zeharkako Zergak	1.000,00
3	Tasak eta Bestelako Zergak	100.593,10
4	Transferentzi Arruntak	462.406,90
5	Ondare Sarrerak	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00
9	Pasibo Finantzarioak	0,00
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>700.000,00</b>

**GASTUAK**

Kapitulua	Izena	€ Guztira
1	Pertsonal Gastuak	271.904,13
2	Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuetan	302.519,87
3	Finantza Gastuak	0,00
4	Transferentzi Arruntak	125.576,00
6	Inbertsioak	0,00
9	Pasibo Finantzarioak	0,00
<b>IRTEERAK GUZTIRA</b>		<b>700.000,00</b>

2021 urterako Aurrekontu Orokorra eta Aurrekontu Exekuziorako Udal Arauak aho batez onartuak izan dira.

**LAUGARRENA.- LANPOSTUEN ZERRENDA ETA PLANTILLA ORGANIKOA ONARTZEA**



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

**2021 URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA**  
**KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK**


IZENA	Lanp. Kop.	T.6/89 L. 43. Art.	Egoera	%
<b>IZAERA NAZIONALEKO FUNTZIONARIAK</b> Idazkari-Kontuhartzaitzaren Azpimaila <b>IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA</b>	1	A1/A2	J	60%
<b>ADMINISTRAZIO OROKORRAREN MAILA</b> Laguntzaileen Azpimaila <b>ADMINISTRAZIO OROKORREKO LAGUNTZAILEA</b>	1	C2	J	
<b>ADMINISTRAZIO BEREZIAREN MAILA</b> Azpimaila Teknikoa <b>* Mota: Erdiko Teknikariak</b> <b>GIZARTE LANGILEA</b> Administratiboa/ <b>* Mota: Laguntzailea</b> <b>LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA</b> Zerbitzu Bereziak <b>*Mota: Ofizioetako Pertsonala</b> <b>ZERBITZU ANITZETARAKO OFIZIALA</b> <b>GARBITZAILEA</b>	1  1  1  1	A2  C2  C2  E	H  J  J  J	36%  40%  55%

**2021 urterako LANPOSTUEN ZERRENDA**

**KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK**

Lanp. Izena	Esk	Azpi-es	Titulaz.	S.P.	Ded.	Taldea	Maila	Os. Esp	H.E.	Der. Dat	Egoera
IDAZKARI-KONTU HARTZAI	Adm. O	F.H.N.	P Zient-Zuzenb. Diplomaturia	C	%670	A1-A2	23	22.404,06	4	91-02-06	Aktiboa
ADMINISTRARI LAGUNTZAIL	Adm. O	Lagunt	Eskola Grad. edo LH1	C	%100	C2	14	23.189,60	3	91-02-06	Aktiboa
GIZARTE LANGILEA	Adm. B	Teknik.	Diplomaturia	C	% 36	A2	17		3	91-12-01	Hutsa
LANETAKO OFIZIALA	Adm. B	Zer.Ber	Eskola grad. edo LH1	C	%100	C2	16	24.122,14	2	91-02-06	Aktiboa
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAI	Adm. O	Lagunt	Eskola Grad. Edo LH1	C	%40	C2	13	7.968,94	3	96-04-01	Aktiboa
GARBITZAILEA	Adm. B.	Zer. Ber	Eskola graduat	C	%55	E	8	10.652,60	2	92-05-01	Aktiboa

**BEHIN-BETIKO LAN PERTSONALARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK**



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

Lanp. Izena	Eskala	Azpi esk	Titulazioa	S.P	Ded	Ta	Maila	Os. Espez.	H.E.	Derr. Data	Egoera	Best. Otros
GIZARTE LANGILEA	Adm Ber	TEKN	Diplomad	C	% 36	A2	13	Ez	3	91-12-01	Mugagab	

2021 urteeko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda batzarrera hurbildutako zinegotzien aldeko botoekin, gehiago absolutuarekin onartuak izan dira.

**BOSGARRENA.- 2020/04 KREDITU ALDAKETA**

**“KREDITU GEHIAGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO 4 zk.ko ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA.**

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikulua ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratuen aho batez, honako hau

**ERABAKI DA**

1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
213.153.40.01	Ibilgailuaren Mantenimendua	1.000,00	465,85	1.465,85
221.920.00.09	Garbitasunerako Materiala	1.500,00	221,21	1.721,21
222.920.50.01	Izferi Ekarpinak	12.000,00	2.185,62	14.185,62
226.166.00.01	Gipuzkoako Urak. Kanonak e.a.	17.930,00	491,57	18.421,57
226.341.00.01	Udalak antolatutako ekintzak	13.500,00	690,10	14.190,10
226.920.00.04	Aholkularitza Juridikoa	8.000,00	167,56	8.167,56
226.920.00.99	Bestelako Gastu Orokorrak	7.000,00	45,36	7.045,36



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

227.151.10.07	Hirigintza Aholkularitza	15.000,00	760,25	15.760,25
227.164.00.01	Hilerriko Gestioa	1.200,00	1.067,63	2.267,63
421.414.00.02	Ikt Zerbitzua	3.600,00	206,30	.806,30
430.231.30.01	Gizarte Larrialdietarako Laguntza	3.600,00	2.215,75	5.815,75
<b>GUZTIRA</b>		<b>84.330,00</b>	<b>8.517,20</b>	<b>92.847,20</b>

**KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA**

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
870.000.00.01	Diruzaintzako Gerakina	109.166,84	8.517,20	117.684,04
<b>GUZTIRA</b>		<b>109.166,84</b>	<b>8.517,20</b>	<b>117.684,04</b>

- 2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

**SEIGARRENA.- 2021 URTEKO EGUTEGI FISKALAREN ONARPENA**

- 1.- 2021erako egutegi fiskala onartzea. Bertan zehazturiko aldizkako epemuga duten eta taldeka jakinaraztekoak diren zorrak borondatez ordaintzeko epeak ondoko hauek izango dira:

ERROLDA	ORDAINTZEKO EPEA
Trakzio Mekanikoko Ibilgailuak	2021eko martxoaren 1etik 31 arte
Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	2021eko maiatzaren 14tik ekainaren 30a arte
Ekonomia-jardueren gaineko zerga	2021eko urriaren 1etik azaroaren 10a arte
Ur Hornidura – Hondakinen Bilketa – 1. hiruhilabetea	2021eko apirilaren 27tik maiatzaren 22a arte
2. hiruhilabetea	2021eko uztailaren 27tik abuztuaren 21a arte
3. hiruhilabetea	2021eko urriaren 26tik azaroaren 20a arte
4. hiruhilabetea	2022ko urtarrilaren 26tik otsailaren 20a arte

- 2.- Aurreko egutegi fiskalean zehazturiko ordainketa egiteko epeak, ezarritako egunean bukatuko dira eta hori jaieguna bada, hurrengo egunean.



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

- 3.- Egutegi fiskal hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udal honetako iragarki oholetan kaleratuko da, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Dirubilketa Araudia onartzen duen abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren 18. artikulua aipatzen duen kobruetarako iragarki betekizuna bete ahal izateko.
- 4.- Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Udalo Gasunen Arautzaileak, 14. artikuluko 1. zenbakian agindutakoa betetz, errolda fiskalak, non ordaindu beharreko kuotak eta hauek finkatzen dituzten zergako elementuak ezartzen baitira, jendaurreko jarriko dira udaletxeko bulegoetan dagozkien kobrantza-epeak hasi baino hamabost egun lehenagotik.

Aipatu errolden betekizunaren aurka berraztertzeke errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzi-bidera jo aurretik, erakustaldi publikoko epean eta epe horren azken egunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean.

Aurrekoarekin bat, azaldutako egutegi fiskal honen iragarkiak kobrantza iragarkiaren zeregina ere beteko du. Kobrantza ondorengo zehaztapenaren arabera egingo da:

- a) Dirua sartzeko epeak: Egutegi fiskal honetan agertzen direnak.
- b) Ordaintzeko era: Helbideratutako erreziboak zuzenean sartuko dira bezeroak esandako Banku edo Aurrezki Kutxaren kontuan.

Helbideratzeke daudenei zorretan dutena ordaintzeko beharrezkoa duten agiria helbide fiskalera bertara bidaliko zaie.

Ordainketa Udaleko bulegoetan edo Kutxabanken ordainduko dira.

Agiri hori eskura izango ez balu, zorretan dagoenak edo haren ordeztan ordaindu nahi duenak, Udaleko bulegoetan eskatuko du agiria, borondatezko ordainaldiaren barne.

- c) Borondatez ordaintzeko denboraldiaren amaiera: Egutegi fiskal honetan zehazturiko borondatez ordaintzeko epea amaitu eta gero, zorrak premiamenduzko prozeduraz exijituko dira, eta epe exekutiboari dagozkion errekarguak, berandutza interesak eta, hala balegokio, sor daitezkeen kostuak ere ordaindu egin beharko dira.



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

**ZAZPIGARRENA.- MOZIOAK**

Ez dago moziorik.

**ZORTZIGARRENA.- BESTELAKOAK**

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, iluntzeko zortzitan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

**ALKATEAK**

Izpta: Iñaki Azpiroz Beldarrain

**IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK**

Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia